Zerbitzu publiko inklusiboen kudeaketari buruzko bigarren jardunaldiaren programa: Beharrak eta jardunbide egokiak

Irakurketa Errazean

Nork antolatzen du jardunaldi hau?

- Lehendakaritzako, Gobernu Irekiko eta Nafarroako Parlamentuarekiko Harremanetarako Zuzendaritza Nagusiak.
- Irisgarritasunaren Unitate Arduradunak.

Noiz da jardunaldia?

Urriak 23, asteazkena,

goizeko **9etatik** eguerdiko ordu **2etara.**

Non da jardunaldia ?

Jardunaldia **Baluarteko** Ziudadela aretoan izango da izango da.

Baluarte Konstituzio plazan dago, Iruñean.



Jardunaldian izena ematea

Klikatu esteka honetan

eta bete Izena emateko galdetegia

Jardunaldia pertsona guztientzat **irisgarria** da.

Zein da jardunaldiaren helburua?

Nafarroako Gobernuak gizartea inklusiboagoa izan dadin zer egin dezakeen erakustea.

Inklusioa gizartea pertsona guztientzat izatea da, adibidez, desgaitasuna duten pertsonentzat.

Nolakoa izango da jardunaldia?

Hitzaldi 1,

ikerketa mahai 1

eta 2 mahai-inguru egongo dira.

Navarra te incluye
Programa de la Unidad Responsable de Accesibilidad

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

Jardunaldiaren egitaraua

Jardunaldia **goizez** izango da.

8ak eta erdietan

Aretoaren ateak irekiko dira

9etan

Jardunaldiaren eta edukien aurkezpena



Luis Casado

Iddeas Fundazioko zuzendaria da.



Joseba Asiain

Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzako, Gobernu Irekiko eta Nafarroako Parlamentuarekiko Harremanetako Zuzendari Nagusia da.

9ak eta erdietan

Inaugurazio hitzaldia.

Administrazioak inklusioaren sortzaile gisa duen zeregina.



Jesús Martín Blanco

Desgaitasunari buruzko
Errege Patronatuko zuzendaria da.



Zeri buruz hitz egingo du Jesusek?

Baliabide publikoak kudeatzean pertsona guztiak barne hartzeak duen garrantziaz hitz egingo du



10etan

Ikerketa mahaia:

Desgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasun-beharrei buruzko ikerketak eta Espainiako Konbentzioa nola betetzen den

Zeri buruz hitz egingo da mahai-inguru honetan?

Hainbat pertsonak desgaitasuna duten pertsonek zer behar duten esaten duten ikerketak erakutsiko dituzte.



Cristina García Aguayo

Iddeas Fundazioaren proiektu arduraduna da.

Nork aurkeztu eta moderatuko du eztabaida?

Ikerketa mahaien esku-hartzea

1. Esku-hartzea:

Arkitekturaren zeregina mendekotasunaren arretarako zentroetan



Elisa Pozo Menéndez

Arkitektoa eta urbanista da
eta hiri jasangarrietan
eta arkitektura bioklimatikoan
espezializatutako doktoretza du.

Zeri buruz hitz egingo du Elisak?

Mendekotasunaren arretarako zentroen diseinuan dauden oztopoez arituko da. Zentro horiek ondo diseinatuta ez badaude, bertan bizi diren pertsona desgaituak ez badaude, ez dute autonomiarik.

Mendekotasunaren arretarako zentro bat
beren kabuz eguneroko jarduerak
egin ezin dituzten pertsonak
zaintzen eta laguntzen dituena zentro bat da,
adibidez, adineko pertsonak
edo desgaitasunen bat dutenak.

2. Esku-hartzea:

Desgaitasuna duten pertsonak Espainiako unibertsitate-sisteman sartzeari buruzko 6. azterlana



Carlos Sánchez Pérez

Universia Fundazioko
proiektuen analista da.
Proiektuak aztertzen dituen
pertsona da.

Zeri buruz hitz egingo du Carlosek?

Desgaitasuna duten pertsonek unibertsitateetan ikasi ahal izateko dituzten oztopoei buruz hitz egingo du, nahiz eta dagoeneko irisgarritasunean aurrerapen batzuk dauden.

3. Esku-hartzea:

Espainia 2023ko Giza Eskubideen eta Desgaitasunaren Konbentzioa betetzeari buruzko CERMIren txostena



Gregorio Saravia

CERMIko ordezkaria da
Giza Eskubideen
eta Nazio Batuen Erakundeko
Desgaitasunaren
Konbentzioaren gaietan.

Zeri buruz hitz egingo du Gregoriok?

Desgaitasuna duten pertsonek oraindik justizia, hezkuntza eta enplegua lortzeko arazoak dituztela esango du.
Desgaitasuna duten emakumeek indarkeria handiagoa jasaten dute.
Irisgarritasuna hobetu den arren, diskriminazio handia dago oraindik, batez ere Interneten eta bankuetan.

11ak eta laurdenetan

Atsedena



12ak laurden gutxietan

Zerbitzu publiko inklusiboen jardunbide egokien 1. mahai-ingurua



Zeri buruz hitz egingo da mahai-inguru honetan?

Hainbat pertsonak lan egiten duten zerbitzu publikoetan inklusioa nola lortzen duten azalduko dute.
Hauek dira jardunbide egokiak.



Luis Casado

Iddeas Fundazioko presidentea da.

Nork aurkezten eta moderatzen du eztabaida?

1. mahai-inguruaren esku-hartzeak

1. **Esku-hartzea:**

Irisgarritasun Unibertsalaren Kudeaketa Extremaduran



Jorge Rebollo

Extremadurako Juntako Irisgarritasun eta Osasun Kontseilaritzako eta Gizarte Zerbitzuen zuzenari nagusia da.

Zeri buruz hitz egingo du Jorgek?

Extremadurako Irisgarritasun Unibertsalaren estrategiaz hitz egingo du.

Estrategia bat gai bati buruz etorkizunean helburu bat lortzeko plan bat da.

Estrategia honen helburua Extremadurako herritarren irisgarritasun unibertsalaren maila hobetzea da, horrela komunitatean aukera berdinak izan ditzaten eta modu autonomoan disfrutatu ditzaten.

2. Esku-hartzea::

Irisgarritasun Unibertsalaren Kudeaketa Vinalopóko Ospitale Unibertsitarioan



Mari Carmen Gil

Erizaintzako zuzendaria eta Vinalopoko Osasun Saileko Kalitate arduraduna da.

Zeri buruz hitz egingo du Mari Carmenek?

Vinalopóko ospitalean, Alacanteko probintzian, desgaitasuna duten pertsonei laguntzeko plan berezi bat sortu dutela azalduko du.

Helburua pertsona horiek mediku-arreta eskuragarriagoa jasotzea eta haien bizi-kalitatea hobetzea da.

3. Esku-hartzea:

Administrazio Publikoei Aplikatutako Komunikazio Argiko UB DIBA Katedra



Mar Forment Fernández

Filologia Hispanikoan doktorea, Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea eta Administrazio Publikoei aplikatutako Komunikazio Argiko UB-DIBA katedrako zuzendariordea da.

Unibertsitate bateko **katedra** gai jakin bati buruz ikertzeko eta irakasteko ikerketa bat da.

Zeri buruz hitz egingo du Mar-ek?

Komunikazio Argiko UB DIBA Katedraz hitz egingo du.

Katedra honek herritarrekiko komunikazioa hobetzeko balio du.

Helburua pertsona guztiek erraz uler ditzaten bidaltzen dituzten dokumentuak eta mezuak argiagoak egitea da.

Bartzelonako Diputazioaren komunikazioa aztertzen dute batez ere.

Katedrak UB DIBA du izena, gaztelaniaz **B**artzelonako **U**nibertsitateko lehen letratik eta **Ba**rtzelonako **Di**putazioko lehen bi letretatik datorrelako.

Eguerdiko ordu 1a laurden gutxitan

Zerbitzu publiko inklusiboen jardunbide egokien 2. mahai-ingurua

Zeri buruz hitz egingo da?

Hainbat pertsonak Nafarroako zerbitzu publikoetan inklusioa nola lortzen duten azalduko dute.

2. Mahai-inguruaren esku hartzeak

1. Esku-hartzea:

Irisgarritasuna 2024ko Sanferminetako egitarauan



Mari Luz Sanz

CERMINeko presidentea da.



Maider Beloki

Kultura, Hezkuntza, Aniztasun, Turismo eta Merkataritzarekin zerikusia duten gaien zinegotzi arduraduna da.



Zeri buruz hitz egingo dute?

Pertsonak San Fermin jaietan egon daitezen irisgarritasun-neurriei buruz hitz egingo dute.

2. Esku-hartzea:

Nafarroako Turismo Plana, sektoreko prestakuntza eta tutoretza



Ainhoa Arnaiz Tomé

Nafarroako Gobernuko Turismoaren Lurralde Garapen Iraunkorreko Zerbitzuan lan egiten du.

Zeri buruz hitz egingo du Ainhoak?

Ostatu turistikoak, adibidez, landetxeak, kanpinak eta hotelak, eta **festa turistikoak**, adibidez, Kazolatxoaren eta Nafarroako Ardoaren Astea, zuzentzen dituzten pertsonei ostatu eta ekitaldi horiek inklusiboagoak eta irisgarriagoak izan daitezen jasotzen duten prestakuntzaz hitz egingo du.

3. Esku-hartzea:

Nafarroako Gobernuaren Diseinu Inklusibo eta Irisgarriaren Plan Estrategikoa



Joseba Asiain

Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzako, Gobernu Irekiko eta Nafarroako Parlamentuarekiko Harremanetako Zuzendari Nagusia da.

Zeri buruz hitz egingo du Josebak?

Nafarroako Gobernuan **Diseinu Inklusiboaren eta Eskuragarriaren Estrategia** egiteko nola lan egiten ari diren azalduko du.

Eguerdiko 2ak laurden gutxitan

Jardunaldiaren amaiera



Jardunaldi hau irisgarria da

Horrek esan nahi du pertsona guztiek jardunaldian ematen den informazio guztia eskuragarri izango dutela.

Entzumen-irisgarritasuna

Zuzeneko azpitituluak
eta zeinuen hizkuntza egongo dira gaztelaniaz.
Aurretik eskatu duten pertsonentzat indukzio bukle indibidualak
ere egongo dira.

Irisgarritasun kognitiboa

Jardunaldiko egitaraua
Irakurketa Errazean dago.
Gainera, aretoaren seinaleztapena ulermen arazoak dituzten pertsonentzat
irisgarria da.

Irisgarritasun fisikoa

Baluarteko Ziudadela aretoa
mugikortasun murriztua duten pertsonentzat
irisgarria da.
Aretoko komunak irisgarriak dira ere.
Mugikortasun murriztua duten pertsonak
jardunaldira kotxez joan daitezke
eta Baluarteko aparkaleku erreserbatuan
aparkatu dezakete.

Ikusmen irisgarritasuna

Eguneko programa braillean dago.
Gainera, mugikorrarekin
NaviLens markatzaile bat
eskaneatu dezakezu.

© Erraz irakurtzeko erraza den Europako logotipoa: Inklusio Europe.
Informazio gehiago https://www.inclusion-europe.eu/easy-to-read/

Eskaneatu markatzaile hau
NaviLens aplikazioarekin